BELAUNTZAKO UDALA

EZ-OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia:
Eguna: 2026-05-28
Ordua: 20:05 – 20:20
Tokia: Udal osoko bilkura-aretoa

Bertaratuak

- Iñaki Telleria Bengoechea ..... Denok Bat
- Jose Mari Iturbe Mendiola ..... Denok Bat
- Amaia Gaztañaga Aldalur ..... Denok Bat
- Iñigo Etxabe Mendizabal ..... Denok Bat
- Jose Luis Celaya Argote ..... Denok Bat

Bertaratu ez direnak

- Silvia Moneo Cid ..... Denok Bat

Idazkari/kontu-hartzailea

- Andoni Gartzia Arruabarrena

Aztergaiak

1.- Aurreko bilkurako akta (2026/12/29) onartzea.

2.- Alkateak hartutako erabakien berri ematea.

3.- Udal aurrekontua gauzatzeari buruzko informazioa eta diruzaintzaren mugimenduei eta egoerari buruzkoa osoko bilkurari ematea (2026ko lehen hiruhilekoa).

4.- 2025eko aurrekontuaren likidazioa.

5.- Kreditu aldaketa. 01/2026 kreditu transferentzia.

6.- Ohiko udal osoko bilkuraren aldizkakotasuna

7.- Batzorde informatibo iraunkorren aldaketa, sorrera eta osaketa.

8.- Kontratazio-mahai iraunkorraren sorrera eta osaketa.

9.- Alkateari eskumenak eskuordetzea.

10.- 2027. urteko herriko jai eguna izendatzea.

11.- Belauntzako HAPOko "Egoarre" 5. Hirigintza Eremuko 1. egikaritze Unitatearen Xehetasun Azterlanari BEHIN-BETIKO ONARPENA.

12.- Belauntzako bake-epailea izendatzea.

13.- Informazio, galderak eta eskariak.

BELAUNTZAKO UDALA

Esan-eginak eta erabakiak

1.- 2026KO ABENDUAREN 29KO AKTA ONARTZEA.

Iñigo Etxabe Mendizabal zinegotzia abstenitu egin da aurreko bileran egon ez zelako, gainerakoek, berriz, alde bozkatu dutenez, akta onartu egin da.

2.- ALKATEAK HARTUTAKO ERABAKIEN BERRI EMATEA.

Idazkariak Alkateak hartutako erabakien berri ematen du:

- *2026/001 zenb. dekretua, urtarrilaren 2koa,* ***Belauntzako "Plazako argiteria II. Fasea" lanak GOTEK SOLUTIONS, S.L. enpresari esleitzea****, kontratu txikiko prozedura erabilita. Kontratuaren prezioa 7.485,00€ (BEZ gabe), 9.056,85€ (BEZ barne).*

- *2026/002 zenb. dekretua, urtarrilaren 14koa, Belauntzako Hiriburu kaleko 12-D behean behetentsioko* ***lurpeko linea kanalizatzeko lanak egiteko baimena ematea****.*

- *2026/003 zenb. dekretua, urtarrilaren 21ekoa, nahiz oraindik urbanizazio-obren harrera formala egin gabe egon, Belauntzako Udalak* ***bere gain hartzea Beotibar poligonoan*** *udal-arkitektoak adierazten dituen* ***konponketa-lanei ekiteko*** *eta industrialde horretako erabilera publikoko espazioei buruzko* ***gabeziak jakinaraztea eta konpon ditzaten eskatzea erabiltzaile guzti-guztiei.***

- *2026/004 zenb. dekretua, urtarrilaren 21ekoa, Goizalan Eraikuntzak, S.L. enpresak jarritako* ***4.700,00 euroko bermea itzultzea*** *.*

- *2026/005 zenb. dekretua, urtarrilaren 28koa,* ***Gizarte Larrialdietarako laguntza*** *ematea A.M. herritarrari.*

- *2026/006 zenb. dekretua, urtarrilaren 28koa,* ***Gizarte Larrialdietarako laguntza*** *ematea I.D. herritarrari.*

- *2026/007 zenb. dekretua, urtarrilaren 28koa,* ***Gizarte Larrialdietarako laguntza*** *ematea Y.S. herritarrari.*

- *2026/008 zenb. dekretua, urtarrilaren 28koa,* ***Gizarte Larrialdietarako laguntza*** *ematea A.B.F.S. herritarrari-*

- *2026/009 zenb. dekretua, otsailaren 4koa, Saizar Strapping Machines, S.L.k Donostiako Administrazioarekiko auzien 1 zk. Epaitegian jarri duen* ***errekurtsoan udal honen defentsarako*** *Jose Francisco de Assas Yagües eta Maite Aguirrebeña Garitano* ***abokatuak izendatzea*** *eta Ana Arrizabalaga Lerchundi, Jose Luis Andikoetxea Gracia, Sandra Perez Alba eta Juan Antonio Fernandez Mugica* ***prokuradoreak izendatzea****.*

- *2026/010 zenb. dekretua, otsailaren 4koa,* ***Tolosaldea Garatzen, S.A. elkarteari,*** *2025eko abenduaren 15eko Batzar Orokorrean onartutako 2026ko Gestio Planean aurre ikusitako* ***ekintza, zerbitzu eta programak bideratzeko enkargua agintzea****.*

BELAUNTZAKO UDALA

- *2026/011 zenb. dekretua, otsailaren 4koa, J.M.A.A. herritarrari* ***baimena*** *ematea Hiriburu 12 lurzatian dagoen familia bakarreko etxebizitza eta garajea* ***lehen aldiz okupatzeko****.*

- *2026/012 zenb. dekretua, otsailaren 20koa,* ***Gizarte Larrialdietarako laguntza*** *ematea A.M. herritarrari.*

- *2026/013 zenb. dekretua, otsailaren 27koa,* ***Gizarte Larrialdietarako laguntza*** *ematea M.B,T. herritarrari.*

- *2026/014 zenb. dekretua, otsailaren 18koa,* ***2025-kald-000002-00 kreditu aldaketa kontabilitzatea.***

- *2026/015 zenb. dekretua, otsailaren 18koa, O.P.M. herritarrak aurkeztutako* ***ondare-erantzukizunaren erreklamazioa onartzea.***

- *2026/016 zenb. dekretua, otsailaren 26koa, M.L.G.. herritarrari Hiriburu 24ko Arretxe baserriaren ganbaran* ***lurra berritzeko obra-lizentzia*** *ematea.*

- *2026/017 zenb. dekretua, otsailaren 27koa, Jesus M Celaya Argote y Otros, S.C.-ri Etxeberri abeltegian* ***eraberritze lanak egiteko obra-lizentzia*** *ematea.*

- *2026/018 zenb. dekretua, otsailaren 26koa, Saizar Strapping Machines, S.L. enpresari makinaria muntatzeko planta jarduera Belauntzako Beotibar poligonoa, A.I.U. º0 "Saizar" eremuan dagoena, sailkatua adieraztea eta gauzatzeko* ***jarduera baimena ematea.***

- *2026/019 zenb. dekretua, martxoaren 4koa, Andoni Gartzia Arruabarrena jaunari Berriatuko Udalean idazkari/kontu.hartzaile lanpostuari dagozkion eginkizuna* ***gehienez ere urtebetez metatzeko baimena ematea.***

- *2026/020 zenb. dekretua, martxoaren 5koa, J. A.E herritarrak Iturri Goikoa eraikinaren birgaitzeari buruzko* ***kontsultari udal arkitekto aholkulariak egindako txostenaren arabera erantzutea.***

- *2026/021 zenb. dekretua, martxoaren 6koa, Otegui Eraikuntzak, S.L. enpresak sustatuta eta Belauntzako Udalak izapidetutako Belauntzako HAPOko "Egoarre" 5. Hirigintza Eremuko 1. Egikaritze Unitatearen* ***Xehetasun Azterlanari HASIERAKO ONARPENA EMATEA.***

- *2026/022 zenb. dekretua, martxoaren 12koa,* ***Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Kontratazioen Zentralak irekitako espediente honi atxikitzea****, udal batzarrak 2013ko azaroaren 28an onartutako atxikipen hitzarmenean eta 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuan jasotako arauetan adierazitako baldintzetan:* ***Gas naturala hornitzeko kontratazioa.***

- *2026/023 zenb. dekretua, martxoaren 16koa, deskribatutako* ***lursaila honela bereizteko*** *lizentzia ematea:*

Parcela segregada "Atariko-Soroa": "La heredad nombrada Atariko-Soroa con una superficie de dos mil doscientos cincuenta y cuatros metros cuadrados, y confina: Norte, los terrenos de los caseríos Aldari y camino carretil; Este, con la parcela segregada; Sur, con los terrenos del caserío Aranguren-Auzkoa y camino carretil y Oeste, con camino carretil.

Y el resto de finca "Etxe-azpia": "La heredad nombrada "Etxe-azpia" con una superficie de mil setecientos veintiocho metros cuadrados, y confina: Norte y Oeste, con los terrenos de los caseríos Aranguren-Onuzkoa; y Este y

- *2026/024 zenb. dekretua, martxoaren 18koa, A.E.Z. herritarrari **hirigintza-lizentzia** ematea Belauntzako Hiriburu Guneko 2A zenbakian dagoen familia **bakarreko etxebizitzan estalkia material berriaren berreraikitzeko.***

- *2026/025 zenb. dekretua, martxoaren 26koa, Aste **Santuko ludoteka zerbitzuan begirale lanetarako honako lan-kontratazioak burutzea** martxoaren 30etik apirilaren 1era arte eta apirilaren 7tik 10era arte*

- *2026/026 zenb. dekretua, martxoaren 26koa, P.M.C. herritarrari Belauntzako Hiriburuko kaleko 9. zenbakiko F. etxebizitzan dagoen lur-zati pribatuko urbanizazio perimetralean oinezkoentzako pasabidea egiteko obrari **lehen erabilerako lizentzia ematea.***

- *2026/027 zenb. dekretua, martxoaren 26koa, Belauntzako Beotibar eremuan **zoladura berritzeko lanak kontratatzea**, Bixente Otegi Lizaso, S.L. kontratistarekin obraren zenbatekoa, BEZ gabe, 18.444,85 euro izanik eta BEZ barne, 22.318,27 euro izanik*

- *2026/028 zenb. dekretua, martxoaren 31koa, J.M.A.A. herritarrari Belauntzako Hiriburuko kaleko 12.D zenbakiko behean **behe-tentsioko lurpeko linea kanalizatzeko obrari lehen erabilerako lizentzia ematea.***

- *2026/029 zenb. dekretua, martxoaren 31koa, Belauntzako Okobio kaleko 32. zenbakian Caldererıa de Aceros Dulces e Inoxidables, S.A. enpresaren pabilioiaren estalkian 470 Kw-ko potentzia duten **instalazio fotovoltaikoa instalatzeko aurretiazko komunikazioa egintzat aitortzea.***

- *2026/030 zenb. dekretua, martxoaren 31koa, 2025eko **aurrekontuaren likidazioa onartzea.***

- *2026/031 zenb. dekretua, apirilaren 20koa, jarraian zerrendatzen zergadunei Hiri izaerako ondasun higiezinen gaineko zergan **hobaria onartzea**:*

ZERGADUNA	*N.A.N.*	*ERREF. KATASTRALA*	*HOBARIA*
N.L.M.A.	*34107965T*	*77 76 036*	*% 50*
J.E.U.	*72481510T*	*77 76 063*	*% 50*
I.O.E.	*72524224A*	*78 77 040*	*% 50*
A.P.A.	*44161655E*	*61 98 413*	*% 50*

- *2026/032 zenb. dekretua, apirilaren 27koa, J.A.M. herritarraren lan-**kontratuaren klausula gehigarria aldatzea**, hain zuzen ere, 2025eko irailaren 3an gehitu zen aldaketa kentzea.*

- *2026/033 zenb. dekretua, apirilaren 29koa, Hiriburu kaleko 17. zenbakiko 1. solairuko eskuineko etxebizitzan bizi ez delako ___ (Y6696341C) biztanleari **Belauntza udalerriko Biztanleen Udal Erroldan baja emateko prozedura HASTEA**.*

- *2026/034 zenb. dekretua, apirilaren 29koa, Fabricaciones Especiales Manufacturadas, S.A. (SAFEM) enpresari Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun saileko Ingurumen Administrazioko Zuzendari Nagusiak izenpetutako txostena jakinaraztea.*

BELAUNTZAKO UDALA

- *2026/035 zenb. dekretua, apirilaren 29koa,* ***Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zergari dagokion 2026ko ordainagirien errolda onartzea****, diru-bilketaren guztizko kopurua 34.877,18 eurokoa duena*

- *2026/036 zenb. dekretua, apirilaren 29koa,* ***zabor bilketa zerbitzuaren tasari dagokion 2026ko ordainagirien errolda onartzea****, diru-bilketaren guztizko kopurua 39.894,00 eurokoa duena.*

- *2026/037 zenb. dekretua, maiatzaren 15ekoa,* ***Gizarte Larrialdietarako laguntza*** *ematea B.T. herritarrari.*

- *2026/038 zenb. dekretua, maiatzaren 13koa,* ***Gizarte Larrialdietarako laguntza*** *ematea Y.S. herritarrari.*

- *2026/039 zenb. dekretua, maiatzaren 20koa,* ***Gizarte Larrialdietarako laguntza*** *ematea I.D. herritarrari.*

- *2026/040 zenb. dekretua, maiatzaren 22koa,* ***Gizarte Larrialdietarako laguntza*** *ematea A.M. herritarrari.*

- *2026/041 zenb. dekretua, maiatzaren 11koa, G.B.P. herritarrari ibilgailua aparkatzeko* ***ezinduentzako txartela ematea****, bost urterako.*

- *2026/042 zenb. dekretua, maiatzaren 11koa, 1/2026 kreditu transferentziaren espedienteari.*

- *2026/043 zenb. dekretua, maiatzaren 20koa, Belauntzako Hiriburu kaleko 8.* zenbakiko Aranguren Honuzkoa etxea banatzeko eta barnealdea berriztatzeko hirigintza udal-baimena lortzeko Renovaciones Tecnicas de Frías, S.L. enpresari **eskatzea** Belauntzako udal arkitekto aholkulariaren eta txosten sektorialek adierazitako baldintzak jasoko dituen **egikaritze-proiektua aurkeztea.**

3.- UDAL AURREKONTUA GAUZATZEARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA DIRUZAINTZAREN MUGIMENDUEI ETA EGOERARI BURUZKOA OSOKO BILKURARI EMATEA (2026KO LEHEN HIRUHILEKOA)

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 64. artikuluan, nahiz, 2015eko abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretuaren 1. eranskinak –toki entitateen kontabilitate instrukzioa buruzkoak- 54. erregelan agindutakoa betetzeko, idazkari/kontu-hartzaileak 2026ko lehen hiruhileko epealdiari dagokion finantza eta aurrekontuen arloko informazioa ematen dio osoko bilkurari, 2026ko martxoaren 31ra arteko exekuzioari dagokiona:

1) SARREREN EXEKUZIOAREN EGOERA:

Kapituluak		Behin-betiko aurreikuspenak	Eskubide onartuak		Diru-bilketa garbia		Kobratu gabekoa
1	Zuzeneko zergak	105.000,00	30.055,87	28,62%	30.055,87	100,00%	0,00
2	Zeharreko zergak	20.000,00	2.451,50	12,26%	665,59	27,15%	1.785,91
3	Tasak eta bestelako sarrerak	54.625,00	7.004,52	12,82%	6.517,47	93,05%	487,05
4	Transferentzia arruntak	558.183,00	546.870,99	97,97%	138.036,41	25,24%	408.834,58
5	Ondare-sarrerak	5.200,00	1.758,08	33,81%	729,73	41,51%	1.028,35
7	Kapital transferentziak	15.291,95	15.291,95	100,00%	0,00	0,00%	15.291,95
8	Finantza-aktiboak	0,00	0,00	-	0,00	-	0,00
	GUZTIRA	**758.299,95**	**603.432,91**	**79,58%**	**176.005,07**	**29,17%**	**427.427,84**

BELAUNTZAKO UDALA

2) GASTUEN EXEKUZIOAREN EGOERA:

Kapituluak		Behin-betiko aurreikuspenak	Gastu onartuak		Ordainketak		Baliagarri daudenak
1	Pertsonal gastuak	259.840,00	62.779,76	24,16%	60.824,16	96,88%	197.060,24
2	Gastu arruntak	234.196,42	65.600,44	28,01%	64.347,90	98,09%	168.595,98
3	Finantza gastuak	0,00	0,00	0,00%	0,00	0,00%	0,00
4	Transferentzia arruntak	20.600,00	3.014,62	14,63%	3.014,62	100,00%	17.585,38
6	Inbertsio errealak	243.663,53	18.399,99	7,55%	18.399,99	100,00%	225.263,54
7	Kapital transferentziak	0,00	0,00	0,00%	0,00	0,00%	0,00
9	Finantza-aktiboak	0,00	0,00	0,00%	0,00	0,00%	0,00
	GUZTIRA	**758.299,95**	**149.794,81**	**19,75%**	**146.586,67**	**97,86%**	**608.505,14**

Kapituluak	Behin-betiko aurreikuspenak	Gastu onartuak
Sarrera arruntak (1-5)	2.557.721,00	863.852,10
Gastu arruntak (1,2,4)	2.248.021,00	503.400,21
Diferentzia	309.700,00	360.451,89

4.- 2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA.

Idazkari/kontu-hartzaileak Alkateak 030/2026 Alkate dekretuaren bidez onartu duen 2025eko aurrekontuaren likidazioaren berri ematen du.

5.- KREDITU ALDAKETA. 01/2026 KREDITU TRANSFERENTZIA.

Ikusirik Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa.

Ikusita bitarteko Idazkari/Kontu-hartzailearen txostena eta ziurtagiriak.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, 29. artikuluan kreditu transferentzia onesteko Udal Osoko Bilkurak duela eskumena.

Kontuan hartuta Ogasun eta Kontuetako batzorde bereziak 2026ko maiatzaren 28an hartutako akordioa, hurrengoa onartzea proposatzen zaio Udal Osoko Bilkurari:

***"Lehenengoa**.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 1/2025 espedientea, kreditu transferentzian modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:*

GASTUAK

Kapitulua	*Izena*	*Egungo kredituak*	*Murrizketa*	*Amaierako kreditua*
2	*ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZU EROSKETA*	*19.000,00*	*8.205,04*	*10.794,96*
6	*INBERTSIO ERREALAK*	*125.000,00*	*94.000,00*	*31.000,00*
	GUZTIRA	***144.000,00***	***102.205,04***	***41.794,96***

BELAUNTZAKO UDALA

GASTUAK

Kapitulua	*Izena*	*Egungo kredituak*	*Gehikuntza*	*Amaierako kreditua*
2	*ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZU EROSKETA*	*0,00*	*22.700,00*	*22.700,00*
4	*TRANSFERENTZIA ARRUNTAK*	*2.600,00*	*705,04*	*3.305,04*
6	*INBERTSIO ERREALAK*	*45.663,53*	*78.800,00*	*124.463,53*
	GUZTIRA	***48.263,53***	***102.205,04***	***150.468,57***

Bigarrena.- *Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da kontu-hartzailetza Zerbitzuek berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa."*

Bozkatzeari ekin zaio, eta irizpena aho batez eta gehiengo osoz onartu da.

6.- OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN ALDIZKAKOTASUNA.

Kontuan harturik Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak 46. artikuluan, 5.000 biztanle arteko udalerriek udal osoko bilkurak gutxienez 3 hilabetetik behin egin behar dituztela xedatzen duela.

Kontuan harturik indarrean dagoen legediaren eta jurisprudentziaren arabera bilkuren aldizkakotasuna, data eta ordutegia osoko bilkurak onartu behar duela.

Kontuan harturik 2026ko maiatzaren 28ko Ogasun eta Kontuetako batzorde bereziak hartutako akordioa, hurrengoa onartzea proposatzen zaio OSOKO BILKURARI:

"BAKARRA.- *Udal osoko bilkuren bilerak martxoko, ekaineko, iraileko eta abenduko hirugarren ostegunetan egingo dira arratsaldeko 19:00etan."*

Bozkatzeari ekin zaio, eta irizpena aho batez eta gehiengo osoz onartu da.

7.- BATZORDE INFORMATIBO IRAUNKORREN ALDAKETA, SORRERA ETA OSAKETA.

Kontuan harturik 2023ko uztailaren 19ko osoko bilkuran Ogasuna eta Kontuetako Batzorde berezia soilik sortu zela osoko bilkura osatzen duten 7 kideekin.

Kontuan harturik Batzorde Informatzaile Iraunkorren harira 7/1985 Legearen 20.1c artikuluaren eta 2468/1986 Errege Dekretuaren 123tik 127ra bitarteko artikuluen eta 134tik 138ra bitarteko artikuluak diotena.

Kontuan harturik 2468/1986 Errege Dekretuaren 135.1 artikuluak dioena:

Bilkurak baliozkoak izateko, beharrezkoa da Batzordeko kideen gehiengo osoa egotea, titularrak edo ordezkoak izan, lehenengo deialdian, eta gutxienez hiru kide bigarren deialdian, ordubete geroago.

Kontuan hartuta 2026eko maiatzaren 28ko Ogasun eta Kontuetako Batzorde bereziak hartutako erabakia, Osoko Bilkurari hurrengoa onartzea proposatzen zaio:

"LEHENA.- *Izaera iraunkorreko Batzorde informatiboak sortzea ONARTZEA. /1985 Legearen 20.1c artikuluaren eta 2468/1986 Errege Dekretuaren 123tik 127ra bitarteko artikuluen eta 134tik 138ra bitarteko artikuluen funtzioak betetzeko.*

BELAUNTZAKO UDALA

BIGARRENA.- *Batzorde informatibo bakoitzak 3 kide izango ditu.*

HIRUGARRENA.- *Irizpenak bertaratuen gehiengo arruntarekin onartuko dira.*

LAUGARRENA.- *Izaera iraunkorreko Batzorde Informatiboak, izen eta osaketa honekin ONARTZEA:*

IZENDAPENA	*LEHENDAKARIA*	*KIDEAK*
Hirigintza, Etxebizitza, Ingurumena, Obrak eta Zerbitzuak	*Iñaki Telleria Bengoechea*	*Jose Maria Iturbe Mendiola* *Jose Luis Celaya Argote*
Ogasuna, Kontuen Batzorde berezia, Pertsonala eta Antolaketa	*Iñaki Telleria Bengoechea*	*Jose Maria Iturbe Mendiola* *Jose Luis Celaya Argote*

Bozkatzeari ekin zaio, eta irizpena aho batez eta gehiengo osoz onartu da.

8.- KONTRATAZIO-MAHAI IRAUNKORRAREN SORRERA ETA OSAKETA.

Kontuan harturik 2018ko martxoaren 9an, Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legea sartu zela indarrean eta lege horren bigarren xedapen gehigarrian araututakoaren arabera, data horretatik aurrera udaletxeetako kontratazio mahaiak baldintza hauek bete behar ditu:

- Gutxienez hiru kideekin osatuta egon behar du.
- Ezinbestekoa udal-idazkaria eta kontu-hartzailea edo udal-idazkari/kontu-hartzailea mahaiaren kideak izatea.
- Gehienez kideen heren bat izan daitekeela zinegotzi.

Horregatik OSOKO BILKURARI proposatzen zaio:

"BAKARRA.- *Kontratazio mahaiaren osaketa onartzea -Sektore Publikoaren Kontratazioari buruzko 9/2017 Legea beteaz- eta kide hauek izendatzea.*

- *Lehendakaria: Iñaki Telleria Bengoechea eta, bere ordezkoa Jose Maria Iturbe Mendiola.*
- *1. Bokala eta idazkaria: Andoni Gartzia Arruabarrena (udal-idazkari/kontu-hartzailea).*
- *2. Bokala: Ariane Urdapilleta Iparragirre (Administrazio Orokorreko administraria)."*

Bozkatzeari ekin zaio, eta irizpena aho batez eta gehiengo osoz onartu da.

9.- ALKATEARI ESKUMENAK ESKUORDETZEA.

Ikusirik 7/1985 Legearen 22.3 artikuluari jarraikiz udal osoko bilkurak bere eskumenak eman ditzakeela eskuordetzan Alkateari, espediente administratibo batzuen izapidetzea erraztearren.

Kontuan hartuta 2026ko maiatzaren 28ko Ogasun eta Kontuetako batzorde bereziak hartutako akordioa, hurrengoa onartzea proposatzen zaio OSOKO BILKURARI:

"LEHENA.- *Udal osoko bilkurarenak diren eskumen hauek Alkateari eskuordetzea:*

1.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen araututako kontratuen espedienteak irekitzea.

2.- Kontratuen aldaketa espedientea irekitzea eta izapidetzea.

3.- Udal ondasunak eskuratzeko, besterentzeko edo erabiltzeko espedienteak irekitzea eta izapidetzea.

4.- Udal ondasunen ikerketa espedienteak irekitzea eta izapidetzea.

5.- Udal ondasunak berreskuratzeko espedienteak irekitzea, izapidetzea eta ebaztea.

***BIGARRENA.-** Akordioa GAOn argitaratzea."*

Bozkatzeari ekin zaio, eta irizpena aho batez eta gehiengo osoz onartu da.

10.- 2027. URTEKO HERRIKO JAI EGUNA IZENDATZEA.

Kontuan hartuta 2026eko maiatzaren 28ko Ogasun eta Kontuetako Batzorde bereziak hartutako erabakia, Osoko Bilkurari hurrengoa onartzea proposatzen zaio:

***"Lehenengoa.-** 2027. urterako, Belauntzako tokiko/herriko jaieguna ekainaren 24 eta uztailaren 31 izendatzea.*

***Bigarrengoa.-** Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailaren Bizkaiko lurralde-ordezkariari erabaki honen berri ematea."*

Bozkatzeari ekin zaio, eta irizpena aho batez eta gehiengo osoz onartu da.

11.- BELAUNTZAKO HAPOKO "EGOARRE" 5. HIRIGINTZA EREMUKO 1. EGIKARITZE UNITATEAREN XEHETASUN AZTERLANARI BEHIN-BETIKO ONARPENA.

Kontuan izanik, 2026ko martxoaren 6ko 021/2026 Alkate-dekretuak Belauntzako HAPOko "Egoarre" 5. Hirigintza eremuko 1. egikaritze unitatearen Xehetasun Azterlanari hasierako onarpen eman ziola eta hogei eguneko epean jendaurrean ikusgai egon ostean, alegaziorik ez dela egon.

Ikusirik aipatu espedienteari erantsitako udal arkitekto aholkulariak 2026/02/25eko datan egindako txostena aldekoa dela.

Kontuan hartuta 2026ko maiatzaren 28ko Ogasun eta Kontuetako batzorde bereziak hartutako akordioa, udal osoko bilkurari hurrengo akordioak hartzea eskatzen zaio:

***"Lehena.-** Belauntzako HAPOko "Egoarre" 5. Hirigintza eremuko 1. egikaritze unitatearen Xehetasun Azterlanari behin-betiko onarpena ematea.*

***Bigarrena.-** Aurreko erabakian aipatzen den Xehetasun azterlana Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan gordailutu dezan argitaratu baino lehen*

***Hirugarrena.-** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onespenaren erabakia, eta adieraztea dagokion Hirigintza-plana egin ondoren gordailutu dela erregistro horretan.*

***Laugarrena.-** Hartutako erabakiaren berri interesatuei jakinaraztea."*

Bozkatzeari ekin zaio, eta irizpena aho batez eta gehiengo osoz onartu da.

BELAUNTZAKO UDALA

12.- BELAUNTZAKO BAKE-EPAILEA IZENDATZEA.

Idazkariak Belauntzako bake-epailea hautatzeko jarraitu den prozedura azaldu ondoren eta kontuan hartuta 2026ko maiatzaren 28ko Ogasun eta Kontuetako batzorde bereziak hartutako akordioa, udal osoko bilkurari hurrengo akordioak hartzea eskatzen zaio:

"***Bakarra***.- *Nerea Lopez de Murillas Arenaza, (NAN zk.: 34107965) Belauntzako udalerriko Bake Epaile titular gisa aukeratzea.*"

Bozkatzeari ekin zaio, eta irizpena aho batez eta gehiengo osoz onartu da.

13.- INFORMAZIO, GALDERA ETA ESKARIAK.

Udal osoko bilkurara bertaratu den herritar batek bere kezka agertu Egoarre 5eko hirigintza-eremuan, autoen sartu-irteeretan gerta daiteken arazoarekin, bere ustetan, sarrera/irteera estuegi delakoan. Hau guztia hiritartze-proiektuan aztertu eta landuko dela azaltzen zaio eta ahalik eta irtenbide egokiena ematen saiatuko dela.

Bestelako gairik eztabaidatu behar ez denez, Alkate jaunak bukatutzat jotzen du bilkura, 20:20etan; hortaz, Toki Erakundeen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduko (AFE) 109. artikuluak adierazten duen ondorioetarako, akta hau luzatzen dut eta Korporazioaren Idazkari gisa egiaztatzen dut..

Belauntzan, 2026ko maiatzaren 28an.

Andoni Gartzia Arruabarrena
Udal idazkaria

BELAUNTZAKO UDALA

Ontzat emanda,
Iñaki Telleria Bengoechea
Alkatea